

XEDEA

Gizartea itsas ingurumena errespetatzearen inguruan **sentsibilizatzea eta kontzientziatzea**, ozeano eta itsaso desberdinetako **-Kantauri itsasoa** bereziki azpimarratuz- **flora, fauna eta ondarea erakutsiz, kontserbatuz eta ikertuz** eta, halaber, **itsaso eta arrantzaren inguruko gure tradizioak eta memoria hedatzea**, balio historiko eta emotibo handiko bildumak babestuz, erakutsiz eta ezagutzera emanez.

IKUSPEGIA

Ozeanoen **osasuna eta iraunkortasuna defendatzen** laguntzea.

KUDEAKETA SISTEMAREN POLITIKA

Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioaren (GOF) prozesuen eta ingurumen-jardunaren etengabeko hobekuntzan oinarritutako kudeaketa ziurtatzeko, UNE-EN ISO 9001:2015 eta UNE-EN ISO 14001:2015 arauetan, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1221/2009 (EE) erregelamenduan (erakundeek borondatez parte hartzeari buruzko, ingurumenaren auditoria eta kudeaketarako sistema komunitarioan - EMAS-), oinarritutako kudeaketa-sistema batekin ari da lanean Fundazioa, hirugarren interesdun guztien gogobetetzea eta ingurumen-portaeraren inguruko aldaketak lortzeko

Hori guztia dela eta, sistema behar bezala gara dadin, Fundazioak gure **KUDEAKETA-SISTEMAREN INGURUKO POLITIKA** osatzen duten honako printzipio hauek ezarri ditu:

- Prozesuak eta zerbitzuak hirugarren interesdunen eskari eta premietara bideratzea.
- Baldintzak betetzen direla ziurtatzea, legezkoak eta araudiari dagozkionak barne, bai eta Fundazioak erabakitako bestelako baldintzak betetzen direla ere.
- GOFean ezarritako kudeaketa-sistema urtean behin berrikusiko da, eta gure plan estrategikoarekin bat etorriko diren hobekuntza-helburu batzuk ezartzeko laguntza jasoko dugu.
- Langileak etengabeko hobekuntzan inplikatu dira; alde batetik, sailetan eta sailen artean hobekuntza-aukerak aztertzeko egingo diren bileren bidez; eta, bestetik, hainbat komunikazio-kanal erabiliz langileen parte-hartzea sustatzearen bidez.
- GOFaren ustez, langileen prestakuntza funtsezko elementua da kudeaketa-sistemaren etengabeko hobekuntzarako.

Fundazioaren Kudeaketa-sistemaren barruan txertatutako **Ingurumen-sistemari** dagokionez, printzipio horiekin batera, honako hauek ere funtsezkoak dira:

- Ingurumenaren babesarekiko konpromisoa hartuko da, kutsaduraren prebentzioa barnean hartuta. Ildo horretan, GOFak eragindako ingurumen-inpaktuak ebaluatuko ditu, prebenitu, desagerrarazi edo murrizteko.


- Ahaleginak egingo dira GOFeko kideek, gure hornitzaileek edo beste alderdi interesdun batzuek gure erakundearen parte har dezaten eta gure politikarekin bat etorriko diren ingurumen-jardunbideak har ditzaten.
- Energiaren eta eskuragarri ditugun baliabide naturalen zentzuzko kontsumoa bultzatuko da.

GOFeko Zuzendaritzaren helburuetako bat erakundeko pertsona guztien segurtasuna bermatzea da.

- Laneko istripuei aurrea hartzea ahalbidetuko duen **Laneko Arriskuen Prebentzioaren eta Osasunaren Kudeaketa Sistema** bat jarriko da abian. Horretarako, arrisku potentzialak detektatuko dira, eta langileak babesteko eta laneko segurtasun eta osasunaren arloko legeria betetzeko beharrezkoak diren ekintza zuzentzaileak ezarriko dira.
- Prebentzioa, halaber, GOFean lan egiten dugun guztion erantzukizuna da. Sistema ezartzen eta garatzen parte hartzen badugu, gure lana gero eta seguruagoa eta eraginkorragoa izango da. Horren bidez, erakundeko pertsonen lan-baldintzak hobetu eta, era horretan, haien gogobetetzea handiagotu nahi dugu. Horren ondorioz, laneko efizientzia eta motibazioa handiagoak izango dira, eta laneko bizitzaren kalitatea hobetuko da.
- Zuzendaritzak konpromisoa hartu du Laneko Arriskuen Prebentzioaren eta Osasunaren Kudeaketa Integratuko Sistema garatu eta ezartzeko beharrezkoak diren baliabideak emateko.

Politika hori eskuragarri egongo da hirugarren interesdunentzat, eta erakundearen barruan azalduko da, uler dadin.

Zuzendari kudeatzaileak, Kudeaketa Sistemaren arduradunarekin batera, Eskuliburuan ezarritako sistemaren betetzea kontrolatuko du. Aldi berean, gure erakundeko kide guztiek politika hori onartzea, horretan aktiboki laguntzea eta, era horretan, etengabeko hobekuntzan oinarritutako kudeaketa-sistema bultzatzea espero du.



Izp.: Maria Esther Irigaray Arrate

Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioko Zuzendaria-Kudeatzailea.